

# KANALAK

---



Adin nagusikoen ezagutza zabaltzeko eta beraien ongizatea hobetzeko, gure zerbitzua zenbait kanalen bidez antolatuko dugu.

Lehenik eta behin, bezeroak gurekin elkartzeko toki bat behar dugu bertan gure ekintzak burutzeko. Leku hori lokal bat izango litzateke; lokal hori egokia izateko, lehenengo pisuan egon behar da (baxuan), edo hobeto esanda, taka-takarekin edo gurpildun aulkian datozen bezeroentzat sarrera izan behar du. Toki argia izan behar da eta ongi prestatutako komunak izan behar ditu. Ondarroako zentrotik hurbil egotea komeniko litzateke eta inguruan autobusa edo autoak gelditzeko aparkalekua izan beharko du.



Izan ere, funtsezko beste kanal bat garraioa izango da, autobus zerbitzua, hain zuzen. Autobus horrek bidaiak antolatzen dugunean joan-etorriak egiteko erabiliko dugu, gure bezeroak lokalera ekartzeko eta beren etxeetara itzultzeko.

